



Ebazpena, 2019ko uztailaren 2koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, 2019/2020 ikasturterako Hamaika Esku eta Eusle proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdia behin-behinekoz ebazten duena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko ebazpenaren bitartez deialdia egin zen 2019/2020 ikasturterako Hamaika Esku eta Eusle proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko.

Deialdiaren zazpigarren artikulua arabera, balorazio prozesua egin eta gero, deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko da jendaurrean Saileko web-orrian; halaber, hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

Horiek horrela, eta balorazio batzorde orokorrak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBATZI DUT

Lehena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea I. Eranskinean agertzen den esleitutako lanpostuen behin behineko zerrenda.

Bigarrena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea II. Eranskinean agertzen den baztertutako eskaeren zerrenda.

Hirugarrena.- Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzea III. Eranskinean agertzen diren behin-behineko emaitzak eta lan-poltsa.

Laugarrena.- Interesatuak euren eskubideei egokitzen zaizkien erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 2a

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA